


Izena: Haritz  
Abizenak: Ibarzabal Korta  
Data: 1975-ko Uztaila-k 10  
Jaio-herria: Azpeitia



## **BI HITZETAN**

Bi hitzetan nere bizitzako esperientzia nahiko nuke kontatu. Erabaki hau artzea asko kostatu zait, ez bait naiz gauza pertsonalak kontatzea gustatzen zaion horietakoa. Zoritzarrez jende ugari dago daukadan gaitz edo egoera berdintsuan eta hau irakurtzean lagungarri izatea nahiko nuke.

1977 Urtean hasi zen guztia. Distrofia muskularra dut eta normalean 12 urtetik 15 urte bitartean agertzen omen da, baina neri 2 urteterdikin agertu zitzaidan. Haserako xehetasun guztiak agian nik baino hobetoago gurasoek adieraziko lukete. Beraiek azaldu zidatenez, 2 urteterdi nituela konturatu ziren beso batekin jesto arraroak egiten nituela. Hortik hasi ziren medikuz mediku gauzak argitu nahian, eta ez zen batere erraza izan garai haietan konklusio batera iristea. Gogoan izan 1977 urteaz ari garela eta orduan ez zegoen gaur eguneko teknologia. Bartzelona-n ta dena ibili ondoren probak egiten, azkenean Donostian dagoen ASPACE zentruko mediku batek asmatu zuen ze gaitz nuen, distrofia muscular progresiva, Bidegain medikua izan zen.

Imajinatzen det familian denentzat bonbazo bat izango zela. Ni orduan ez nitzan egoeraren jabe, bainan suposatzen det guztiak alkar apoiatuko zirela familian. Lengusu zaharragoak ikaragarri kezkatu zirela badakit, ez zen xamurra izango ez. Baina dudik gabe okerrean gurasoentzat izango zen. Pentsa, gazteak ziren, beraien amets ta proiektuekin, ilusioz beteak, eta une batetik bestera, zast!! Dena

bertan behera. Beraiek egoera hartan aurrera egin behar izan zuten eta gainera neri irakatsi aurrera egiten, xapo.

Ni hain txikia izanik, gurasoek ez zidaten momentu haietan esan zer nuen. 2 Urteterdiko ume batek ez dauka ulertzerik. Bizitza aurrera joan zan bezela gaitza ulertzen joan nintzen. Egia esan gurasoek ez dute denborarik galdu gaitza esplikatzen, ez didate inoiz azaldu gauz hauek gertatzen joango zaizkizu, edo aurrerago eragozpen hau izan dezakezu. Esplikazio horiek ematea baino zer bait askoz hobea egin izan dute beti, gaitzak berak jartzen joan zaizkidan zailtasunak gainditzeko lagunduz jardun dute buru-belarri, eta beti mediku onenekin inbestigazioa jarraituz. Hori eskertzekoa da.

Oraindik ere inbestigatzen ari dira medikuak nere kasua, zeren atipikotzat daukate joa, eta Gipuzkoan bakarrenetakoa hemen naiz gaitz onekin. Pauso ttikik eman dituzte urte hauetan zehar, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Medikuek ere ez dakite gaitzak ze joera hartu dezaken edozein momentutan. Haserako urteetan oso azkar zioan gaitza eboluzionatzen, baina azken 12 bat urte hauetan nahiko gelditua daukat, dudik gabe gaitzak aurrera jarraitzen du baina lehenengo urtetan baino askoz ere polikiago. Garai hartan 18 urterarte bizi eman zidaten, baina oraindik hemen jarraitzet dut, len aipatu bezela medikuek ez dakite zehatz gaitzaren joka-bideaz. Nola hartzen dudan hau? Ba ezdet aurrera begiratzen, bestela ere badegu nahiko buru-hauste. Egunean egunekoa bizi ta ingurukoetaz disfrutatu, besterik gabe.

Oran naizen guztia dudik gabe gurasoei esker da. Une guztietan ondoan izan ditut. Eman didaten lekzioa izugarria izan da. Une txarretan beti izan dute zer bait berezia, altzatu ta borrokan jarraitzeko indarra eman didatena. Jasotako edukazioaz ere harro nago, sekula ez didate tratatu gaixo bat bezala, ez naiz izan ume konsentitu bat dudan

gaitza edukitzeagatik, zigorra merezi nuenean ederki jaso izan dut eta hori eskertzekoa da, gauz asko ikasten bait dira.

Bizitzan humorea edukitzen ere irakatsi didate, hau bai dela garrantzitsua. Nor beraren izaerak ere asko esan nahi omen du, baina beraiek zer ikusi handia izan dute gai honetan. Badakit negar asko egin dutela ezkutuan, baina nere aurren beti izan dute irribarre bat, ze, zaila ezta? Ba beraiek lortu dute.

Gero etxeko familiakin eta lagunekin ere izugarriko zortea izan dut. Beti daude laguntzeko prest. Ezdet esango lagun ikaragarri ditudanik, baina ditudanak txapela kentzekoak. Ez dago sinisterik ze laguntza ematen duten inguratzen gaituen jendeak, askotan ez diogu honi garrantzirik ematen, baina pixkat pentsatzen hasten bagera berehala ohartuko gara ze zorteko garen.

Arazo dexente izaten ditugu bizitzan zehar, baina beti atera daiteke arazo horietatik laguntza badegu eta norbera ahalegintzen bada. Jarraian agertuko dut bizi izan ditudan arazo batzuk.

Txikitan ba umeen kontuak bizi izan nituen, badakigu umeok batzutan oso krudelak izaten garela. 3 Urterekin arazorik gabe ibiltzen nintzan oinez. Gaitza aurrera zijoan bezala ibiltzeko gero eta arazo gehiago nituen, eta batzuk bazauden ibiltzerakoan ematen nuen pauso posturengatik burla egiten zidatenak, edo baite ere, nola geroz eta errezago erortzen nintzan lurrera ibiltzerakoan ba pasaizon zankadila bat jartzen zidatenak ere. Nik ahal nuen guztia ixilian pasatzen saiatzen nintzen, ez zitzaidan gustatzen eskandaluik edo atentzio zentru izatea, horregatik paso ematen ahalegintzen nintzen, baina batzutan gurasoek atearazi egiten zizkidaten gauzak.

6 Urterekin gurgildun-silan exeri nintzanean, ba antzeko zerbait, burlak, begiradaak..... baina ordurako ikasia nuen gauz horiei paso ematen eta garrantzirik gabe usten. Txikitan ba arazo bezala horrelako gauzak ziren.

Gero eskolako ritmoa ere kostatu egiten zitzaidan eramatea. Idazten neure denbora behar nuen, besteek orduterdi bat behar izaten zutena etxeko lanak amaitzeko, nik berriz arratsalde osoa pasatzen nuen, baina kurtso bukaeran gustora gelditzen nintzen egindako saiakeraz, zeren ikusten nuen aurrera ateratzen nituela gauzak. Orain txikitako arazo guzti haiek ulertzen ditut, baita burlak egiten zidatenen aldetik ere, ulergarria da edade hortan.

E.G.B. bukatzean herritik desplazatu beharra nuen jarraitzeko ikasten. Oso laguntza gutxi zegoen desplazamenduetako, orain ere gutxi badago pentsa orduan. Ofimatikako klase batzuk hartzea erabaki nuen herrian bertan. Ordenagailuz neure ritmoa behar nuenez idazteko, ba klaseak partikularrak ziren eta ikaragarritzko kostua zen. Gurasoek berriz ere beste lekzio bat emanaz izugarritzko esfortzua egin zuten eta hiru urtez jardun nintzan klaseak hartzen. Elbarriontzat orain dagoen mundua teknoloji aldetik oso interesgarria da, eta elbarri gazte guztiak nahi nituzke animatu informatika munduan sartzera.

Azkenaldi honetan arazoak gaitzaren ondorioz etorri zaizkit. Oso gaitzki pasatzera heldu naiz. Ez nuen ertenbideik ikusten eta bizitza osoan gurasoek erakutziriko guztia erabili arren ez nuen reaktionatzen. Bestetan ere izan nituen osasun arazoak, baina honekin ezin nuen, urteen poderioz basoa betetzen joan zitzaidan, desgaste haundi xamarra izanaren seinale, eta ya indar gabe nengoen. Humorea ere joan zitzaidan, eta ni humore gabe ez naiz inor, ta okerren neurekin batera gurasoak ari nintzela hondoratzen ni horrela ikusita. Interneten lagun bati ere esatera iritxi nintzen, ta berak badaki ongi, "toaila bota det" esan nion. Egundoko "jarduna" bota zidan egun hartan, ta egia esan zer pentsatua utzi zidan. Handik egun gutxira Frantziako mediku batzuei esker, argi txiki bat ikusi genuen une hartan nuen arazoaz, nahikoa izan zen neretzako, bereala etorri nitzen gora, "toaila" berriz ere jaso nuen. Zorionez arazoak

konpondu dira eta gustora nago. Gehiago etorriko direla aurrerago? Dudik ez, baina beste lekzio bat gehiago ikasia det.

Bizitza normal bat egiten saiatu beharra daukagu. Proposatutako ezkerorantz lortzen da. Bai, beti dago zerbait eguneroko bizitzan, adibidez, osteko arkitektonikoa, garai batetik lan asko egin dute gai honetan, baina oraindik ere badago zer egin.

Gauzei ez diet horrelako inportantzirik ematen pertsonalki, egin edo joan badezaket, ongi, eta ezinbada ba ez da ezer pasatzen, beti logika honekin hartu dut bizitza. Lagunek ere ikaragarri laguntzen edo jartzen dute beraien aldetik, kanpora bagoaz beti arduratzen dira neretzako adaptatutako toki bat izaten. Batzutan egia esan, neuretzat kezkatzen naiz nik joan dezaketena lekura joaten direlako, eduki dezakete plan desberdin bat, ez?

Badago jendea, ez dakit tontotzat hartzen gaituzten edo zer, umeak bagina bezala hitzegin edo tratatzen gaituztenak. Pertsonalki alde batetik amorru pixkat ematen didate horrelako gauzak, baina barregura ere sortuerazten didate. Jende dexentek aipatu dit pixkat alkar erlaxionatu ondoren, "ez nuen imajinatzen horrelakoa izango zinenik" esan didatenak. Jendeari esan nahi nioke mesedez, alkar tratatzeko momentuan ez hartzeko kontutan daukagun gaitza, ez dugu tratatu berezirik nahi.

Azken finean bizitzara adaptatu egiten zara, badakizu nun daren zure limiteak, eta ez eman buelta gehiegi. Limite horiek gainditzen saiatzea ba primeran, baina ez bada lortzen ez da ezer gertatzen. Gaitza zure bizitzatik bastertzen ikasi behar da, ez utzi bihotza ikutzen beraren arazoek, ez det esaten ahazteko berataz, baina ez digula itto. Hau ikastea ez da sufritzen, zihurtatzen dizuet askoz okerrago pasatu dudala bizitzako bestelako arazo batzuekin gaitzak sortutakoekin baino.

*Begiak pixkat zabaltzen baditugu, ohartuko gara munduan zehar hainbat pertsona daudela gu baino gaizkio eta askoz egoera gogorragoan.*

*Hasieran adierazi bezala lagungarri izan zaizuelakoan agurtu nahi nuke. Saiatu nahi dezuen helburu hori lortzen eta ingurukoetaz ta bizitzaz gozatzen. Hori bai, beti irribarre batekin.*

*Haritz Ibarzabal*